

# HAU DA ta-tum

Zure irakurketa plataforma



IBAIZABAL

# 2024ko NOBEDADEAK!

## EZAGUTU LIBURU BERRIAK

PAPER TXORIAK  
SAIL LARANJA



ZIRIMIRI



PAPER TXORIAK  
SAIL GORRIA



PAPER TXORIAK  
SAIL BERDEA



PAPER TXORIAK  
SAIL URDINA



MATXINSALTO



GAZTETXO



EKIN



## TXOSTENEN ATALA

IKASLEEN  
BILAKAERAREN  
INGURUKO ANALISI  
ETA TXOSTEN  
AUTOMATIZATUAK  
SORTZEA



## IRAKURGAILU MURGILTZAILE BERRIA!

PERTSONALIZATU  
IRAKURKETA  
ESPERIENTZIA  
ELEMENTU  
INTERAKTIBOekin



# ZER DA TA-TUM?

Zure ikasleen irakurketa sustatuko duen tresna digital berritzailea da Ta-tum.

## LIBURUTEGI DIGITALA

Adin guztietarako 850 liburu baino gehiago izango dituzu eskura! Aukeratu zure eskoletarako liburuak, eta egin zure ikasleen irakurketen jarraipena. Aldatu liburu digitalen itxura, zure ikasleen beharren arabera. Ikasleek mugarik gabe irakurri ahal izango dute; gelako irakurketez gain, beste irakurketa batzuk ere egin ahal izango dituzte.

### HIZKUNTZA UGARIKO IRAKURKETA



## JARDUERAK

Liburutegiko irakurketei buruzko 650 kasu baino gehiago ditu plataformak. Hau da, ikasleen irakurketa lana ebaluatzen lagunduko dizuten baliabideak eta jarduerak dituzten irakurketa gidak. Gainera, **proposamen horiek edita ditzakezu**, zure ikasleei egokitzeko eta **zure jarduera propioak sortzeko**.

## GAMIFIKAZIOA

Hezkuntzako gamifikazioak jolasetako elementuak erabiltzen ditu eskola ingurunean, ikaskuntza sustatzeko. Ebatzi beharreko kasu baten gisara aurkezten da irakurketa bakoitza. Jardueren bidez sariak eskura daitezke, eta horrek literaturarekiko interesa areagotzen du. Ta-tumek literaturako detektibe bihurtzen ditu ikasleak, eta zuk literaturako ikerketen agentzia bilaka dezakezu zure ikasgela, plataformak eskaintzen dituen inprimatzeko baliabideen bidez.

## PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: JARDUERAK

Liburu bakoitzaren irakurketa eta jarduerak kasu bilakatzen dira, eta honakoak dituzte:



### BILAKETA

**Aurkezpen** honetan liburuaren bitxikeria batzuk azaltzen dira; desagertu diren eta salbatu beharko dituzten pertsonaia eta objektu batzuen berri ematen da.



### IKERKETAK

Kasuan **jarduerak** daude, hiru unetan antolatuta: irakurri aurretik, irakurketa garaian eta irakurri ondoren.



### SARIAK

Jarduerak ebatztean, ikasleek **puntuak, dominak eta izarrik** lortzen dituzte.

### HEZKUNTZAKO LEGERIARA EGOKITUTA



### IRAKURKETA MUGAGABEAK

Zure ikasleek **plataformako liburu guztiak eskura** ditzakete, eta denbora mugarik gabe irakur dezakete. Adin guztietarako 850 liburu baino gehiago eskura daitezke. Gozatu Ta-tumeko irakurketa katalogo osoaz!



### GAMIFIKAZIOA

Plataformak **bideo jokoetako estrategiak** erabiltzen ditu ikasleen motibazioa handitzeko. Sei ikasletik bostek diote Ta-tumek haien irakurmena hobetzen duela eta irakurketarekiko duten interesa handitzen diela!



### PERTSONALIZAGARRIA

Aldatu liburu digitalen itxura, zure ikasleen beharren arabera: testuaren tamaina, tipografia, hondoaren kolorea... alda ditzakezu. Gainera, irakurgai batzuek lokuzioak eta piktogramak dituzte, irisgarriagoak izateko.

**Kasuak eta jarduerak ere edita daitezke!** Gelan landu nahi diren helburuak eta edukiak egokitu daitezke, ikasleen beharren arabera.



### SEGURUA ETA HAINBAT GAILUTARAKO

Ta-tumen erabilera hezkuntzara mugatuta dago, eta horrek ikasleen segurtasuna bermatzen du. Gainera, edozein gailutatik eta lekutatik sar daiteke bertara. **Deskargatu liburutegiaren App-a**, Interneterako konexiorik gabe irakurtzeko.

### DENA PREST... HAS GAITEZEN!



**Gu arduratzen gara** dena prestatzeaz. Irakasleei eta ikasleei alta ematen diegu, eta taldeak sortzen ditugu, Ta-tumera sartzean dena prest egon dadin.

### TA-TUM KOMUNITATEA



Komunitatean lan egiten dugu! **Ta-tum Kafetegia** blogaren bidez, baliabideak, ideiak, beste irakasle batzuen esperientziak eta webinarrak eskura ditzakezu.

Era berean, zure eskura jarriko dugu gure **newslettera**. Bertan, berri guztien gaineko informazioa jasoko duzu.

### IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA



Pausoz pauso erakutsiko dizugu plataformaren funtzionamendua, eta ahalik eta etekin handiena ateratzen lagunduko dizugu.

### GUK LAGUNDUKO DIZUGU



Plataformaren funtzionamenduaren inguruko zalantzak badituzu, jarri harremanetan gure laguntza sailarekin. Gustura **lagunduko dizugu!**

Plataformako Laguntza atalean tutorialak, gidak eta webinarren grabazioak topatuko dituzu, edozein unetan kontsultatu ahal izateko. Zure ikasleek bideotutorialak dituzte, plataforma literaturako benetako detektibeek bezala erabiltzen ikasteko.



## TXOSTENEN ATALA BIRDISEINATUTA



Gero eta garrantzitsuagoa da irakurmena modu eraginkorrago eta efizienteagoa sustatzea eta neurtzea.

Horretarako, plataformak **txostenentzako atal eksklusiboa du**. Hala, **tresna simple eta eraginkorrak** izango dituzu irakurketan ikasgelak daraman aurrerapen mailari jarraipena egiteko.



### IRAKURMENA NEURTZEKO DISEINATUTAKO JARDUERAK

Ikuspegi ludiko eta hezigarriaren bidez, **ikaslearen partaidetza aktiboa** sustatzen du eta ikaskuntza esperientzia **dibertigarri eta motibatzaile** bihurtzen du. Jarduera horiek funtsezko irakurketa gaitasunak garatzea ere sustatzen dute, hala nola testuen interpretazioa, analisi kritikoa, inferentzia eta informazioaren sintesia.



### TXOSTEN XEHATUAK

Atal honetan tresna analitikoak daude, ikaslearen bilakaeraren inguruan ikuspegi argi eta xehatua eskaintzeko. Txostenek **banakako eta taldeko aurrerapen mailari buruzko datu zehatzak ematen dituzte, eta indarguneak nahiz hobetzeko arloak identifikatzeko** aukera eskaintzen dute.



### PLATAFORMA INTUITIBOA

Atal hau diseinatzean, irakasleen esperientzia hartu da kontuan. **Sistemarekin modu naturalean eta zailtasunik gabe elkarreagin dezaten** ahalbidetzea da helburua.

## MICROSOFTEN IRAKURGAILU MURGILTZAILEA

**Microsoften irakurgailu murgiltzailea** adin eta maila guztietako ikasleen irakurketa esperientzia eraldatzeko diseinatutako soluzio berritzaile gisa aurkeztu da. **Ikaskuntzako beharrak hartzen ditu kontuan tresnak, denentzako ingurune inklusibo eta irisgarria sortuta.**



**Testua segmentuka zatituta, esaldiaren zatiak nabarmenduta eta ozen irakurrita**, irakurketak hobeto xehatu eta uler ditzakete, eta ondorioz, ikaskuntza esperientzia aberasgarriagoa lortzen dute.

## JARIOTASUNA 180 HIZKUNTZA BAINO GEHIAGOTAN

**180 hizkuntza baino gehiagotarako euskarria** eskaintzen du. Ezaugarri horri esker, hizkuntzak errazago ikas daitezke eta hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duten irakurleei aukera ematen die **irakurketako materiala ama hizkuntzan** jaso dezaten, eta hala, gelako aniztasun eta inklusio handiagoa sustatzen da.



### OZENKI IRAKURTZEA

Funtzio hori giltzarria da **hezuntzako inklusioa** lortzeko bidean. Ahotsaren teknologia aurreratu honek **testua hizketa bihurtzen du**, eta irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako aukera asko eta asko zabaltzen ditu, baita entzumen bidezko ikaskuntzako ikuspegiak erabiltzen dituztenentzat ere.

Ahotsaren abiadura eta tonua pertsonalizatzen direnez, esperientzia behar bakoitzaren arabera egokitu daiteke, hala, irakurmena irisgarriagoa eta aberasgarriagoa izan dadin sustatuz.

## ASKOTARIKO IKASKUNTZA BEHARRETARAKO SOLUZIOAK

**Ikaskuntzako beharren aukera zabalera** egokitzeko diseinatuta dago. **Testuaren lerroartea doitzeko, letra tamainak aukeratzeko** eta atzealdeko kolorea aldatzeko aukerak izanik (**ikusmenaren nekea minimizatzeko**), ikasleak **irakurketako esperientzia pertsonaliza dezake**, ikaskuntza optimizatzeko.

## IRAKURKETA HIBRIDOA

Irakurketa hibridoak bi munduen onena konbinatzen du: **paperaren xarma tradizionala eta digitalaren interaktibitatea**. Ikaskuntzako estilo bakoitzera eta norberaren lehentasunetara egokitzeko ezin hobea.

- **Erabateko malgutasuna:** Aukeratu paperezko liburuen edo bertsi digitalaren egokitasun modernoaren artean. Zure irakurketa, zure aukera.
- **Jarduera interaktiboak:** Irakurketa bakoitzaren ostean, irakurmena eta testuaren analisia sendotzeko diseinatutako jarduera digitalak egin ditzakezu.
- **Berehalako txostenak:** Lortu berehalako atzeraelikadura gure irakurmeneko txostenen bidez. Osatutako jarduera digitaletan oinarrituta daude txostenak.



Deskubritu irakurketa hibridoaren ahalmena eta eraman irakurmena beste maila batzuetara!

### ONURAK

- **Egokitzeko gaitasuna:** Zure lehentasunak edozein izanik ere, egokitzen zaizun formatua dugu.
- **Ulermena hobetuta:** Jarduera interaktiboak ulermena sakontzeko eta irakurgai buruan atxikitzeko diseinatuta daude.
- **Atzeraelikadura:** Sortutako txostenek informazio xehatua ematen dute ikasle bakoitzaren aurrerapen mailaren gainean, eta hala, etengabeko hobekuntzaren bidea gidatzen laguntzen dute.

## EDUKIAK ZABALTZEA

Ikaskuntza aberasteko eta irakurgaiak ikasleen estiloetara egokitzeko, katalogoa zabaldu dugu eta **zientzia, teknologia eta kultura** arloko albisteak sartu ditugu. Irakurketa-esperientzia askotarikoa eta estimulatzaileria eskaintzea da helburua, aldi berean testua ulertzeko eta aztertzeko gaitasun kritikoak garatzea sustatuz.



### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA KULTURA ARLOKO ALBISTEAK

Garrantzia duten artikulu eguneratuekin, **ikasleei azken aurrerapen eta joeren inguruan informazioa eman nahi diete, haien jakin-mina eta pentsamendu kritikoa sustatuz** gaurkotasuneko gaietan.

### ONURAK

- **Askotariko gaien garapena:** Askotariko testu motak landuta, **ikasleak material asko eta askotarikoak ulertzeko eta aztertzeko prestatzen dira**. Gaitasun hori balio handikoa da haien prestakuntza akademikorako eta profesionalerako.
- **Hiztegia aberastea:** Formatu bakoitzak **lengoaia eta terminologia jakin bat sartzen du**, eta hala, hiztegia nabarmen zabaltzea lortzen da.
- **Pentsamendu kritikoa sustatzea:** Edukiak askotarikoak direnez, **gogoeta eta analisia sustatzen da**, eta horri esker, ikasleak erronka intelektual zailei aurre egiteko prestatzen dira.

LEHEN IRAKURLEAK

4 URTETIK  
AURRERA!



- **Zu bai zu, Argi!**  
PAPER TXORIAK  
SAIL LARANJA  
**Egilea:**  
Gabriela Keselman  
**Ilustratzailea:**  
Natalia Colombo



- **Zero. Estu eta larri**  
ZIRIMIRI BILDUMA  
**Egilea eta ilustratzailea:**  
Jorge Llangil



- **Niri bakarrik gertatzen zait!**  
PAPER TXORIAK  
SAIL GORRIA  
**Egilea:**  
Gabriela Keselman  
**Ilustratzailea:**  
Marcelo Elizalde




8-12 URTE

8 URTETIK  
AURRERA!



- **Sagu bat nire katiluan**  
MATXINSALTO BILDUMA  
**Egilea:**  
Yolanda Larreategui Duralde  
**Ilustratzailea:**  
Irrimarra



- **Sekretuak eta karameluak**  
MATXINSALTO BILDUMA  
**Egilea:**  
Antton Kazabon  
**Ilustratzailea:**  
Manu Ortega



- **Munstroa eta liburuzaina**  
PAPER TXORIAK  
SAIL URDINA  
**Egilea:**  
Alfredo Gómez Cerdá  
**Ilustratzailea:**  
Carmen Queralt



- **Nesken taldea**  
PAPER TXORIAK  
SAIL BERDEA  
**Egilea:**  
Pascual Alapont  
**Ilustratzailea:**  
Julia Cejas



- **Tomasen belarritakoa**  
GAZTETXO BILDUMA  
**Egilea:**  
Antton Kazabon  
**Ilustratzailea:**  
Jokin Mitxelena



12-14 URTETIK AURRERA



- **Sorginaren hil ala biziko sekretua**  
EKIN BILDUMA  
Egilea:  
Anastasia Atutxa Zamkova  
Azalaren irudia:  
Ima Mendiola



**Anastasia Atutxa Zamkova**

Bioteknologiaren lizentziatua, Sitka izeia genetikari buruzko doktoretza egin zuen. Literaturan lehen pausoak gaztetan eman zituen: 2000. urtean Los Hórreos de Urbiés ipuin lehiaketan bigarren saria irabazi zuen eta 2009an Urruzuno ipuin lehiaketan irabazi zuen saria. Liburu honetan, Nagorek min egiten dion sekretu bat du gordeta eta egun batez, bera eta bere familia arriskuan jarri ahal duen ezusteko bisita bat izango du. Zer ote dago jokoan?



EZ AHAZTU TXOSTENEN ATALA!

Kontsultatu zure ikasleen irakurketa estatistikak, denbora errealean.

Deskargatu zure ikasleen txostenak.



Berrikusi zer liburu irakurtzen ari diren eta zenbat irakurketa ordu pilatu dituzten.

Eskuratu ikasle bakoitzaren batez besteko kalifikazioak.

SORTU ZURE IKASGELAKO LIBURUTEGIA



"Liburuak" erlaitzea, gelan lantzen ari zareten kasuen liburuak ageri dira automatikoki.

Gomendatutako irakurketak ere gehi ditzakezu.



# ta-tum

LIBURU TAUPADAK 

[www.ta-tum.com](http://www.ta-tum.com)



**PROBATU NAHI AL DUZU TA-TUM?**

**GOZATU DOAKO HILABETE BATEZ**

Eskaneatu QR kodea,  
eta erregistratu kode horrekin



**DEMO\_TATUM**

LG BI 552-2024



8 4 14 64 3 11 77 80